

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio-ereduak funtziona dezan, beharrezkoak dira funtsezko baliabideak edukitzea. Horregatik, aktibo horiek definituko ditugu. Baliabide horiek hiru motatan bereizi ditzakegu: fisikoak, intelektualak eta finantzarioak.



Hasteko, fisikoei dagokienez, enpresa zuzentzeko lokal bat edukitzea funtsezkoa da. Gure kasuan, ofizina txiki bat eta almagazena bat ezarriko ditugu. Bertan, mahaiak eta aulkiak egongo dira, almagazenean egongo diren apalez gain. Ordenagailuak ere eramango ditugu etxetik webgunean eta gure aplikazioaren programazioan lan egin ahal izateko.

Bestalde, baliabide intelektualak erreparatuz, bakoitzak bere abileziak ditu. Bakoitzaren abileziak elkartuz, gure enpresa aurrera eramatea errazagoa egingo zaigu, bata bestearengandik ikasiz.

Programazioa alderdi garrantzitsuena dela iruditzen zaigu. Beraz, bi taldekide arduratuko dira honetaz. Alde batetik Amets, betidanik ordenagailuekin oso ondo konpondu dena. Bere aitak txikitatiki erakutsi dio programatzen, informatikaria baita. Hazten joan den heinean gehiago ikasi du, programazio kurtsoetara ere joan da. Bestetik Laida dago, teknologia zale amorratua. Txikitatiki punta-puntako teknologia eskuragarri izan du eta bere gurasoek garrantzi handia eman diote tresna horien inguruko ezagutzari. Amets bezala, programazio kurtsoetara ere bertaratu da.



Iker betidanik oso pertsona soziala eta irekia izan da. Hori dela eta, negozioak egiterako garaian, pertsona egokiena dela uste dugu. Haurra zenetik enpresa bat sortzea izan du amets. Bere denbora librean, ekonomiaren inguruko egunkariak irakurtzea gustatzen zaio eta hainbat hitzaldietan parte hartu du, arlo honi buruz gehiago ikasteko. Horrez gain, Iker oso trebea da hizkuntzetan. Ingeles maila aparta du, eta gainera, Frantzia bizi izan zenez, frantsesa ere ondo menperatzen du.

Miren oso abila da sare sozialak eramaten. Bere ama marketing munduan murgilduta dago, eta horregatik dago interesatuta horretan. Horrez gain, duela hilabete gutxi, publizitatearen inguruko ikastaro bat egin zuen. Bertan, enpresa bateko produktuak nola publizitatu eta produktuak ahalik eta jende gehienari iritsiaraztea ikasi zuen. Marketing munduaz gain, ekonomia eta enpresen kudeaketa

ere gustuko du, bere aitak esparru horretan egiten baitu lan. Interes handia pizten dio enpresen gestioak.

Baliabide intelektualak alde batera utziz, baliabide finantzarioei ekingo diegu. Ezinbestekoak dira materiala erosi, soldatak ordaindu, edozein motatako erosketak egin edo negozioa zabaltzeko. Hasieran, taldekide bakoitzaren aurrezkiak erabiliko ditugu enpresarekin hasteko, eta ondoren, produktua saltzen eskuratutako irabaziekin ordainduko ditugu dagozkigun kostu guztiak.